

gure lurriña

Bi*o*lur
Gipuzkoa





SARRERA

Konturatu orduko pasa zaigu urtea, eta ez nolanahiko urtea gainera!

2023 urtea berezia izan da, elkarrekin 30 urte bete ditu, eta ibilbidea gogora ekarri dugu, bide ezberdinetatik plazaratu eta jendarteratuz. Baina batez ere elkartzeko eta ospatzeko tarte hartu dugu. Uztailean ospatu genuen, eta batzarra berezia izan zen, ederra benetan!

30 urteko ibilbidea ez dugu guk bakarrik egin, eta alboan izan ditugu hiru hamarkada luzez Bionekazaritza eta BLEko kideak besteak beste, eta haiekin ere ospatzeko aukera izan dugu.

Zorionak eta eskerrik asko guztioi!

Urte berezia, eta proiektu eta erronkaz betea izaten ari da. Hainbat lan ildo ditugu mahai gainean; Nekazal proiektuak iraunkorrako eta burujabeago egiteko formazioak, taldeen jakintza trukaketarako foroak, DUINA ikerketaren ondorioetatik abiatutako ekimenak... Ekoizpen Duina Kontsumo Herrikoia aldarria jendarteratzen gabiltza; azoketan, topaketetan, eskoletan eta komunikabideetan nagusiki. Aurrerantzean ere, kontsumo elkartearen eskutik jarraituko duguna.

Agroekologia eta elikadura burujabetza ardatz, lankidetzak eta sareak eraikitzea da Biolurren egiteko modua eta horretan dihardugu hainbat eragilarekin ditugun proiektu ezberdinetan.

Aurten bide horretan, erronka berria jarri dugu mahai gainean, aurrera begirako proiektu garrantzitsua, AMILLUBI proiektua hain zuzen ere; Biolurrek herritik eta herriarentzat erosiko duen baserria.

Hiru hamarkada luzetan Biolurrek egindako lanak elkarrekin sinesgarritasuna eta aitortza lortzea ekarri du, eta horri esker, Amillubi proiektua izaten ari den azken urte luze honetako prozesuan aliantza sendoak eta saretze garrantzitsua eraikitzea lortu dugu.

Guzti honek konfidantza ematen digu aurrera begirako elkarrekin erronkei erantzuteko. Hala bedi!

LEHENDAKARIA
MIRIAM ARRIZABALAGA BADIOLA
BARATZAGINTZA,
DONIENE BERRI BASERRIA. ITZIAR

LEHENDAKARI ORDEA
AIZPEA IZAGIRRE BALDA
OKINTZA,
SOSOLA BASERRIA. EIBAR

IDAZKARIA
IORITZ IGARATAUNDI ARREGI
BARATZAGINTZA ETA ARTZANTZA,
SAKONA BASERRIA. AZPEITIA

DIRUZAINA
JUDIT GARCIA LLORENS
ABELTZANTZA ETA GAZTAGINTZA
ETXEBERRI GOIKOA, OLABERRIA

BATZORDEKIDEA:
ASIER LIZARRALDE ARRILAGA
FRUTAGINTZA,
LIZAGASAR BASERRIA. ELGOIBAR

BATZORDEKIDEA
NERE ASPIAZU BASKARAN
BARATZAGINTZA,
ESKUBARATZ. BERGARA

BATZORDEKIDEA:
IÑAKI INTXAUSTI ITURZAETA
BARATZAGINTZA ETA ABELTZANTZA,
MENDARTE BASERRIA. ZERAIN

BATZORDEKIDEA
AITOR OTEGI EPELDE
ERLEZAGINTZA,
AIKUR BASERRIA, URRETXU.

BATZORDEKIDEA:
ENEKO SOLANA OLABIDE
FRUTAGINTZA ETA OKINTZA,
HARITZIZABAL BASERRIA. ITSASO

BATZORDEKIDEA
ASIER BASTARRIKA GOROSTIZA
OKINTZA ETA GOZOGINTZA,
GOIABE BASERRIA. AIA



A2023/07/09

Biolurren 30. urteurrenerako kanta.

Doinua: Txikia

Iraultza berdearen grisena
hedatzean gurean barrena,
bizitzaren oinarriak zein diren
ahaztuarazi nahi izan ziguten.

“Lurrik gabe, egin nekazaritza
erraztuko baitzazu bizitza!”
Emitza da autonomi galera
eta berdin darraite gainera.
Adibidetzat hor dugu “food for future”
zabor jana bera.

Baina etziren guztiak hor amildu,
buruargi, Biolurren bildu.
Ta ordutik 30 urtean
gutxieste askoren artean.
Arrazoia daukagu lagun
ta tinko jarraitu dezagun!

**Arro adi, nekazaria tinko
ta sistema betiko ez dagola esan.
Mespretxatuaz badabil ustela,
eman egurra eta kandela.
Mendez mende lortutako guztia
borrokatuz, lortu den bezela,
antolatu, jai dago bestela. (bis)**

Eta gaur 30 urtera
berriz ere hemen bildu gera,
bizitzaren berezko izaera
elkarrekin aldarrikatzera.
Lurrak berez badauka gaitasuna
eta jartzen bada maitasuna,
luzaroan mantentzen du bizitza
ta hori da guztiaren giltza.
Biolurren helburua da,
gogotik, saiatuko gara!

**Arro adi, bizitzaren erroa
ta lurraren orroa gogotik bota zan.
Herriari esaion asfaltoetan
baratzerik ez dela loratzen,
gure haurrek biharko garaietan
zer jan behintzat eduki dezaten,
eta inor zapal ez dezaten.**

**Arro adi, bizitzaren erroa
ta lurraren orroa gogotik bota zan.
herriari esaion asfaltoetan
baratzerik ez dela loratzen,
gure haurrek biharko garaietan
mundu justu bat izan dezaten,
ta zoriontsu izan daitezen.**







BARATZEZAIN TALDEA

PORRU LANDAREA ETXEAN EGITEKO SAIOAK

Gogoan izango duzue 2022an baratzezainen talderako ereiteko makina bat erosi genuela. Erosketa honen helburu nagusia, porru landarearen parte handi bat etxean hazteko tresna bat izatea zen.

2023 hasieran, makinak behar zituen doitzeak egin eta funtzionamenduaz jabetu ondoren, 3 baserritan egin genituen ereite saioak; Itziarko **Doniene** berri baserrian, "*Etxean landareak egiteko baratzezain foroa*" egin genuen eta makina probatu. Bergarako **Ziarretan** eta Lezoko **Apaizartzan** animatu ziren probak egitera.

Donieneko ereitea otsailean egin zen negutegi barruan. Ereite makina erabiltzen ikasteko lehen saiakera izanik, ez genuen lortu ereite on bat egiterik; oso irregular joan zen, hutsune dezente gelditu ziren eta beraz, ez genion jarraipen handirik eman.

Ziarreta eta Apaizartzako baratzetan beste bi saiakera egin genituen. Ereiteak egiteko sasoian pixka bat berandu ibili ginen, apirilaren bigarren hamabostaldian egin ziren aire librean.



Makinak 75 cm-ko zabalera du eta 12 lerro ereiteko aukera ematen du. Horietatik 6 erabili genituen, zuloetako bitik bat tapatuta eta lerro artean 12,5 cm utzita.

ZIARRETAKO EREITE SAIOA, BERGARA

EREITE DATA: 2023/04/17

LUR PRESTAKETA: simaur erdi onduarekin **ongarriketa (4 kg/m²)** + errotabatorra.

EREITE ABIADURA: **0,36 m/s.**

UREZTATZEA: **mikroaspertsioa** ziklo guztian zehar.

ZAINTZA LANAK: **belarra 3 aldiz kendu**, aitzur txikiarekin lerro artean eta eskuz lerroan.

AZALERA: **30 m²** (0,75 m bankala x 40 m luze).

ERABILITAKO HAZIA: Atal (Clause etxekoa) **180 gramo erein ziren.** (Makinaren kaxa betetzeko 315 g erabili ziren).


LANDARE KOPURUA: 12.000 porru inguru, uztailaren 2. hamabostaldian **400 porru/m²**.

IÑIGO ETA JONEREN EKARPENAK:

Beraien iritzi **tresna erabilgarria da, baina lana dago prozesu guztia hobetzen.**

Landarea pixka bat miaztuta tamaina hobea hartuko luke landatzerako.

Belarraren kontrola hobetzeko, erne aurretik erretzea probatu daiteke, propanozko erretzeko makinarekin. Baita bi aldiz erreta, erein aurretik eta ondoren.





APAIZIARTZAKO EREITE SAIOA, LEZO

EREITE DATA: 2023/04/21

LUR PRESTAKETA: errotabatorra +
okultazioa 7 astez (lurra plastiko
beltzarekin estali) + errotabatorra.

EREITE ABIADURA: **0,40 m/s.**

UREZTATZEA: **aspertsioz hasieran**, oso
gutxi.

ZAINTZA LANAK: **belarra kendu 3 aldiz**,
eskuz.

AZALERA: **48 m2** (0,75 m x 65 m)

ERABILITAKO HAZIA: Monstruoso de plata
(Aleka) **150 gramo erein ziren**. (Makinaren
kaxa betetzeko 400 g erabili ziren)

LANDARE KOPURUA: 12.000 porru inguru,
uztaila eta abuztuan zehar, **250 porru/m2**.

NEKA ETA JOXETXOREN EKARPENAK:

Erabilgarria dela ikusten dute.

**Nahiz eta berandu landatu jasotakoa
merezi izan die.** Belarren kudeaketa nahiko
lan fina izan da eta denbora ematen du,
baina etxean, lurrian egindako porruak ez
du zer ikusirik bandejetan egindakoekin.

**Okultazio prozesua eta denborak hobetu
beharko lituzkete.** Hala ere, lehenago
konposta erabiltzen zuten porru landarea
egiteko eta aurten okultazioarekin soilik
(nahiz eta momenturen batean plastikoa
altxatu zitzaien) emaitzak nahiko
berdintsuak izan dira. Okultazioarekin
simaurketa lana aurreratu dute.

ONDORIO BATZUK

- Belarraren kontrolak ematen du lanik
handiena, belarraren kudeaketa hobetu behar
da.
- Ereingo den hazi kopuruaren bikoitza erabili
behar da makinak daukan hazi depositua
behar bezala betetzeko, nahiz eta soberan
gelditzen dena berrerabil daitekeen.
- Lortu diren landareak oso kalitate onekoak
izan direla berretsi da.

**Guzti hauekin ondorioztatu dugu tresna
interesgarria izan daitekeela porru landarea
etxean egiteko. Bere erabilera sistematizatuta
arin eta erraz egiteko lana izan daiteke,
landara kopuru dezentea lortzeko.**





BABES SAREAK ERAIKITZEN

Uda honetan berriz izan ditugu txingor, haizete eta bestelako ezbeharrak, eta haien ondorioz gure baratx jardunean gehitutako zailtasunak. Horrelako gertaeren eraginez, baratzezainon zaurgarritasuna oso agerian geratzen da eta gai hau jorratu eta haren **gainean hausnartzeko asmoz urrian bildu ginen.**

Ezbeharren aurrean jasaten ditugun ondorioak ez dira soilik ekonomikoak. Lan zama handia gehitzen zaio gure egunerokoari, ahaztu gabe emozionalki zer-nolako kolpea eragin dezaketen.

Egoera horiei aurre egiteko, kolektibotasuna baliatu beharko genukeela sinesten dugu, "Duina" proiektuko ondorioek argi eta garbi islatzen duten bezala.

Lehen **bilera horretan, babes mekanismoak artikulatzeko aukera batzuk identifikatu genituen;** erresistentzia ekonomiko kutxa bat, denbora banku bat eta auzolanak, besteak beste. Lan karga arintzeko bestelako zenbait modu bilatzeari, egokitzeari edota indartzeari buruz ere hitz egin zen, hala nola Deba garaiko Ortulaguntza egitasmoa eta Aldundiko ordezkapen zerbitzua.



Bilera solasaldian jasotako ideia batzuk, laburbilduta:

- Aitortu genuen ematea jasotzea baino errazagoa zaigula orokorrean eta, hori horrela **izanik, askotan laguntza eskatzea kostatzen zaigula.** Beraz, **laguntza jasotzeko, gertatu zaigunaren inguruko informazioa eman** beharko genuke, hasteko. Horretarako, hots, babes sarea eratzeke, **elkar informatzeko tresnak eta sarea garatu beharko genituzke, eta jendea parte hartzera animatu.**
- **Erresistentzia kutxa** bat sortzea aipatu bada ere, ez da erraza ikusten hura kudeatzea, dirua nori eta nola banatzeko erabakiak hartzea oso gai korapilatsua izan baitaiteke.
- **Hernandadearen figuraz ere hitz egin genuen.** Ez litzateke kuota finkorik egongo: ezbeharren aurrean, hermandadeko kideek ekarpena egingo lukete. **Erresistentzia kutxa bat izango litzateke, baina diru fisikorik metatu gabe.** Horrelako hermandade figura bat gure errealitatea gizarteratu eta diru bilketak antolatzeke baliagarria izan liteke.
- **Denbora bankua interesgarria izan liteke,** kontzeptua oinarri hartuta, guretzat baliagarria izango litzatekeen egitura sortzeko. Kasu honetan, ez litzateke kalte ordainik aztertu beharko, eta horrek funtzionamendua sinpletuko luke.
- **Auzolanak unean uneko lan zama arindu eta emozionalki sostengua emateko tresna oso baliagarriak dira,** eta, hori dela eta, sistematizatu egin beharko genituzke. Gure jardunean ohiko praktika bihurtuta, taldea saretu eta haren indarra sumatuko litzateke.



- Norbaiti zerbait gertatzean, modu kolektiboan erantzutearen garrantziaz jardun genuen; era berean, Aldundira edo bestelako erakundeetara sektore antolatu gisa joan beharko genukeela izan genuen hizpide, gure aldarriei eta borrokari indarra eman eta haien zilegitasuna agerian uzte aldera.

Zerbait egiteko beharra ikusten da taldean, baina txikitik hasita.

Hiru lan ildo aurreikusten dira:

1- Auzolanen bitartez babes emozionala eta bat-bateko lan zamak arintzea.

2- Erresistentzia kutxa eredu bat definitze.

3- Gizartea baliatzea tarteka diru bilketak antolatuta.

Biolurreko beste taldeetara zabaltzeko aukeraz ere hitz egin genuen. Hortaz, adieraz beza, edozein ekarpen egiteko edota gaia lantzeko prest dagoenak!



ORTULAGUNTZA EKIMENA

Debagoiena eskualdeko baratzezaintzako martxan jarriko dugun Ortulaguntza zerbitzuaren berri emango dizuegu datozen leroetan.

Baratzegintza profesionalean ari diren ekoizleak sostengatu, erreleboa bermatu eta proiektu berrien sorreran laguntzea helburua duen laguntza-sistema lantzen egon gara urte honetan zehar eta heldu da aurkezteko garaia.

“Baratzezainen laguntzaile” figura sortuko dugu eta 2024ko urtariletik aurrera langile bat etxaldez etxalde arituko da tarteka, nekazari bakoitzaren beharren arabera lanean.

Udalek finantzatuko dute zerbitzua, kontratazioa Deba Garaia landa garapen elkartetik egingo da eta talde eragile batek kudeatuko du zerbitzua (sektoreko zein elkarteko ordezkariez osatua).

Zerbitzua diseinatzea ez da lan erraza izan, eta bereziki, eguneroko lanak eta egoerak lehenestea beharrezkoa zitzaigun. **Lagunduko diren lanak** ondorengoak dira beraz: **eskuzko lanak, otarrak eta eskariak prestatu, mantenu lanak, makineriaren erabilera...** Honez gain, erosketa kolektiboan koordinazioa aukera moduan planteatu zen. Eta **azpimarra berezia jarriko da, egoera eta baldintza zaurgarrietan** (gaixotasunak, bajak, atsedanak...).

Nekazari txiki guztientzako laguntza izango den arren (guztira 10), **helburua nekazaritza agroekologikoa indartzea da.**

Eta hori nola? Nekazaritza ekologikoko praktiketatik kanpoko tratamenduak ez onartuz eta luraren emankortasuna eta bioaniztasuna hobetzeko zereginei garrantzia emanez.



ORTULAGUNTZA zerbitzurako lan-deialdia

Debagoiena eskualdean martxan jarriko den ORTULAGUNTZA zerbitzurako lan-deialdia.

Baratzegintza profesionalean ari diren ekoizle txikiak lagundu, hauetan erreleboa bermatu eta proiektu berrien sorrera sustatzea helburua duen laguntza-sistema martxan jarriko da.

EZINBESTEKO BALDINTZAK:

- Baratzegintzan lan-esperientzia izatea*
- B-motako gida-baimena eta ibilgailuaren disponibiltatea*

DUINA IKERKETA OINARRI

Biolurren Duina ikerketaren ondorioak aurkeztu ziren 2022an Gipuzkoako eskualde ezberdinetan. Baita Debagoienean ere. Aurkezpen horren ostean, lan saio bat egin genuen, herriko nekazari, udaleko ordezkari eta elikadura mahaiko kideok herri mailan zer egin al genuen erantzuteko asmoz.

Bertan atera ziren proposamenen artean zeuden orohar lan karga arintzea garrantzitsua zela, egoera zaurgarrienean daudenak sostengatzea, eta eskoletan "Ekoizpen Duina, Kontsumo Herrikoia" unitate didaktikoa ekoizleek ematea.

BERGARAKO ELIKADURA MAHAIA BULTZATZAILE

Elikadura burujabetzan urratsak eman eta herri mailan elkarlanean arlo ezberdinei erantzuteko proiektuak garatzen ari gara Bergarako Elikadura Mahaian. Bertako kide gara Bergarako Udala, Landa Garapen Elkartea, Ehundu elkartea, Eskubaratz (ekoizleak) eta Ereindajan.

Sorreratik, errelebo lantaldea egon da martxan, eta bertatik heldu diogu eskoletako saioak eta ortulaguntza lantzeari. Interesgarria bezain korapilotsua izan da espazio hau erakunde askotarikoen ezagutza egon delako mahai gainean: administrazioaren logika eta prozedurak, sektorearen beharrak...

Ideietatik zehaztasunetara salto eginez, Ortulaguntzaren funtzionamendua irudikatzea apur bat kosta zitzaigun. Biolurreko teknikariekin eta beste eskualde batzuetako esperientziekin kontrastatzea oso lagungarria izan da (Hernani, Baztan...).

Proiektua landuta geneukala, udalez udal eta landa garapen elkarteko juntan aurkeztu zen. Urrian ekoizle guztien eta udal ordezkarien batzarrean kontrastatu eta azkenean azaroan onartu da.

Zerbitzuaren finantzazioa eskualdeko 8 udalen ekarpenaren bitartez egingo da, herrietako biztanle eta baratzezainen kopuruak proportzionalki kontuan hartuta.

TOKIKO ELIKADURA POLITIKAK LANTZEN

Nekazarien bizi eta lan baldintzak duintzea askoz ere gai zabalagoa den arren, uste dugu honelako proiektu zehatzak lantzeak aurrera begira lanean jarraitzeko bide bat irekitzen digula.

Udalen zein erakunde ezberdinen konpromiso politikoa landu eta herri zein eskualdeko elikadura politiketan sakontzeko aukera moduan ikusten dugu.





AUTONOMIAN ERAGIN NAHI DUTEN FORMAZIO SAIOAK

Txikitik ari garenontzat formazioak ezinbestekoak dira, besteak beste, gure etheen autonomian laguntzen dutelako. Behar hori biderkatzen da formazio estandarretan nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren lan moldeen ezaugarriak aintzat hartzen ez diren testuinguruan.

Gabezi hori abeltzaintzan oso nabarmena da, nahiz eta azken urteotan erakunde publikoetatik gero eta gehiagotan sortzen diren gure beharretara egokitzen diren saioak.

Biolurren arlo hau, maila batean edo bestean, beti egon da presente; baina aurren berebiziko indarra eman zaio autonomiaren bidean formazioak duen tokiari, eta **bi ikastaro** antolatu dira. Biak ala biak oso garrantzitsuak: **esnekien APPK**en jarraipena eta **sendabelarren erabilera**.

Ez da gauza berria aipatzea esnekien munduan gabiltzanok, zenbaitetan, osasun sailarekin ditugun zailtasunak, ikuskapenak direla eta. Zailtasun horiek maiz ez datoz lanak gaizki eginak direlako, baizik eta aplikatzen zaizkigun neurriak industriari aplikatzen zaizkion berberak direlako.

Egoera horren ondorioz gure gain hartu behar ditugun lanekin batera horien gastuak ere badatozkigu; eta zenbait kasutan horien ordainketek zailtzean jar dezakete gure jardueraren jarraipena bera ere.

Biolur elkarteak apustu sendoa egiten ari da zailtasun horiek leuntzeko, eta Arroyo laborategiko Ana eta Mariarekin eginiko formazioa urrats garrantzitsua izan zen luzea den autonomiaren bide horretan.

Goiz osoa eman genuen aztertzen marko legalak gure ekoizpenean duen eragina eta zer nolako aukerak ditugun horiek gurera ekartzeko.

Hausnarketa kolektibo horretan oso aberasgarria izan zen esneki-egileon arteko informazio trukea eta irakasleekin kontrastatzea.



Arratsaldean Sakona etxaldean ikuskapen simulazioa egin genuen eta han jarraitu genuen bakoitzaren egoerak dituen berezitasunak nola molda daitezkeen arau orokorrera eta zer helduleku ditugun burokrasiak itota ez bukatzeko.






Irailean sendabelarren erabileraz aritu zitzaigun Garbiñe Larrea. Anek jasotako informazioa garrantzitsua izan zen saioa bideratzeko; izan ere, Anek gure etxeetan dauden osasun-arazoez duen ezagutza oinarritu zen Garbiñeren jarduna. Beraz, oso saio praktikoa izan zen; denok erraz irudikatu genuela han azaldutakoa gure ukuilutan, gure animalieki denok erraz irudikatu genuela han azaldutakoa gure ukuilutan, gure animaliekin.



Sistema agroekologikoetan murgilduta gaudenok badakigu prebentzioan eta zaintzan oinarritu behar dugula gure lana, gerora arazoak ahalik eta arinen eta urrien izateko. Horrez gain, esnearekin lan egiten dugunok badakigu zer garrantzi handia duen gure animalien osasunak kalitatezko esnea izateko, alde guztietatik –organoleptikoki eta osasunari begira–. Ikuspegi horri sendabelarrek egin diezaioketen ekarpena oso interesgarria da.

Horrek, alde batetik, dakar, nahitaez, landareen ezagutza –edo ezjakintasuna–. Ziur aski, askoren kasuan, sendabelarrei buruzko jakintza herrikoiairen berreskurapenean dago lan itzela egiteko. Beste batzuen kasuan lanketa etorriko da landare horien erabileran eta nahasketen eta aplikazioaren formulazioetan.

Bide eder bat dugu aurretik sistema agroekologikoetan sakontzeko, elkarrekin.



Askok jakingo duzue Abeltzain taldeko Josebe Blancok Argiaren eskutik plazaratu berri duela liburu zoragarria, testu eta irudi ederrez osatua.

Egunerokoak aukera ematen dio idazkera libre eta literarioan esan nahi duen horri formarik eraginkorrena aurkitzeko. Tarteka poesiak ere gehitzen ditu, batzuek euskaraz eta beste batzuek galegoz.

Artzainaren hiztegi txiki bat ere badakar liburuak, herritar guztiek euskal kulturaren parte diren hitz eta jakinduriak eskuratu ditzaten. Artzainak urte osoan egiten dituen lanen taula ere jasotzen du liburuak. Eta mapa bat ere bai, liburuko pasarteak kokatu ditzan irakurleak. Hori guztia Eider Uribarrenaren ilustrazioek edertua, Dani Blancoren argazkiek jantzia eta Maitane Gartzandiaren diseinuak biribilduta.

Plazarik plaza zabaldu ditu artzaintzaren imaginario estandarrean sartzen ez diren artzainaren bizipenak.

Opari zoragarria gabon hauetarako!



BEHIEN KORONABIRUSA

Lehen sektorean panikoa berriz ere! **Beste behin, zorigaitzek abeltzainen mundua astindu du.** Ez zen izan nahikoa iazko lehortea edota bazka, pentsu eta gasolioaren prezioen igoera. Aurten ere zerbait gertatu beharra zegoen.

Iaz Europako hegoaldean antzeman bazen ere, **irailean iritsi da Gaixotasun Hemorragiko Epizootikoa (GHE) Gipuzkoako baserrietara,** abeltzainen eta teknikarien artean alarma piztuz.

Eta ez da harritzekoa. Kontsumismoak egunero zeharkatzen gaitu hirietan zentratua dagoen bizitza honetan; **eredu industrialak gorakadan jarraitzen du; merkeago ateratzen da "distantziara" erostea eta elikagaiek eta animaliek milaka kilometro bidaiatzen dute gure gosea "prezio onean" asetzeko.**

Merkataritza libreko ekonomiaren eta globalizazioaren aro honetan, non denak balio duen, ez ginateke harritu behar **gaixotasun "emergente" eta "reemergenteak" ugaritzea.** Eta batzuk galdetuko duzue, ta zer dira gaixotasunak "emergente" eta "reemergenteak"? **Kokapen geografiko berri batean lehen aldiz agertzen direnak, aurretik infektatzen ez zituzten espezieak kutsatzeko ahalmena lortzen dutenak eta desagerrarazitzat jotzen ziren gaixotasunen berragerpenak dira.**

Azken urteetan **hainbat adibide** izan dira. Ezagunena bi hilabetez etxean mantendu gintuen koronabirusa. Baina kontua da abeltzaintzan askoz ugariagoak izan direla: **mingain urdina, hegazti-gripea, Rift-eko sukarra eta ardi-baztanga...** Eta bitartean gizartean ez gara konturatu ere egin, gizakiari eragiten ez diotenez... zoonosi bat ez denez... "janaria" supermerkatuetara iristen jarraitzen duenez...

Artean abeltzainok bazken prezioen igoerarekin desesperatuta gure produktuak prezio duinean saltzearen alde borrokatzen, eta etsipena hartuta kasurik onenean GHE-a bazarrik utzi gabe igaroko delakoaren esperantzarekin.

Eta egia da, adituek diotena, **behin gaixotasuna lurralde berri batera iritsita, aldaketa klimatikoak hauek bertan geratzea lagundu du.** Baina ez guri adarra jo. **Eltxo bat edo birus bat ez da gai atlantikoa hegan zeharkatzeko, ezta mediterraneo ere.** Merkantzia-ontzi haundi horietako batean bidaiatu ostean heldu da hona. Milaka kilometro bidaiatu ondoren. Merkeago ateratzen delako. Merkeago ateratzen zaielako.

Badakigu oso zaila dela globalizazioaren eta **kontsumismoaren gupil hori guztia gelditzea,** baina gure baserrien etorkizuna ziurtatu nahi badugu, kontsumitzailearentzat osasungarriak diren elikagaiak ekoizti eta animaliak zein ingurumena errespetatu behar ditugu, eta **zentzu horretan agroekologia berresten dugu aukera bakar bezala.** Gure produktu ekologikoei balioa emanaz eta ahal den neurrian gure bizimodua hirietara hurbilduz.

Bide horretan, **Abenduan bi ekimen** burutu genituen abeltzaintza ekologikoa plazaratzeko. **1) Euskal Kostaldeko GEOPARKEarekin elkarlanean. 2) EKOLURRArekin Durangoko Azokan.**

EKOIZPEN EKOLOGIKOA EZAGUTZEKO BISITA

TXINDURRI ITURRI BASERRIAN

Abenduak 3
10:00-14:00

Topagunea: Txindurri Iturri baserria
Mardari Auzoa (Itziar-Deba)

PLAZA MUGATUAK

tzren-ematea
labur.eus/lurzorua2023
T. 943 19 24 52

GEO PAR KEA **unesco**

Lurzorua
Nazioarteko Eguna

Abeltzaintza ekologikoarekin dena hobetzen da.

Biolur **eko** **30**

Abeltzaintza ekologikoa
Ekolurra eta Biolur.
Talde lana.

Film emanaldia

Ikus-entzunezko hau Biolur-ek (eredu ekologikoa sustatzen duen baserriar eta herritarren elkarte) eta ENEEK-EKOLURRA-k (euskadiko nekazaritza eta elikagai ekologikoen kontseilua) elkarlanean sortutakoa da.

OKIN TALDEA

ETENGABEKO FORMAZIOAN GABILTZA

LANIRINA PROIEKTUKO TOPAKETA

Martxoaren 30ean Lanirina proiektuaren barruan (Arabako ADR Lautadak duen proiektua) okin profesionalen topaketan parte hartu genuen. Bertan Zamorako Ecotrigo proiektua ezagutu eta egin dituzten gari barietateen emaitzak aurkeztu zizkiguten. Hainbat nekazari, okin, eta eragile bildu ginen, bakoitzaren esperientzia eta ezagutzak konpartitzeko.

ESPERIENTZIA BERRIAK IKASTEKO BISITA

Okin taldean antolatzeko eta egiteko era ezberdinak daude, eta bakoitzak bere moduak ditu. Hala ere azkenaldian, hotzean hartitzeko prozesuaren inguruko esperientziak mahai gainean jarri dira. Taldean inork ez duenez egiten, eta ikasteko beti prestutasuna izanik, Azkoitian Labesu Kooperatiba Txikiak duen okindegia bisitatu genuen Ekainaren 28an. Bertako kide diren Iraitz Elordi eta Iraultza Arrizabalagak beraien ezagutza eta esperientzia erakutsi ziguten.

OKIN PROBA

Ogia egiteko gari nahasketa erabakitze okin proba egiten da, eta erabakitze gunea izateaz gain, formaziorako espazio garrantzitsua da. Alea erosi eta etxean bertan ehotzen dugun okinek parte hartzen dugu eta aurten 7 etxeetako kideak bildu gara Haristizabalen Irailaren 9an. Nekazariak ere gonbidatzen ditugu, eta aurten Arabatik Adolfo batu zaigu.

14 barietateren analisiak eta probak egin ditugu; 6 Arabako uza izan dira, eta beste 8ak Nafarroakoak.

Analisiak eta okin proba egin ondoren, 10 barietate aukeratu dira nahasketarako, eta horietatik 4 Arabako Adolfo eta Alfredoren uza izango dira, eta beste 8ak Nafarrak, 6 Hazialdeko elkartearenak, eta bestea Alcaravan-ekoa.

Guztira 56 Tona gari izan da aurtengo eskaera bateratua. Euskal Herriko garia eta ogia.

OKINTZA EKOLOGIKOA

IRIN EKOLOGIKOEN KALITATEA

Okin profesionalen arteko topaketa

2023ko martxoaren 30a - 11etatik 14etara
Zalditegiak - NEIKER (Arkauti)





HoBBea PROIEKTUA

Zuzeneko harremanez gain, bertako eta herrikoiak diren barietateekin lan egitea gure helburuetako bat da. Aspaldiko urteetan Eibarko Sosola baserrian eta Errezilgo Iruretxiki eta Solakan, ahalegin horretan Gipuzkoako barietateak berreskuratzeko lanetan dabiltza eta hornitzen gaituzten nekazariekin ere lantzen dugu lan ildo hau.

Aurten, zentzu horretan **“HoBBea, Lurraldeko ogi ekologikoa denontzat hobea da”** proiektua landu eta mugazgaindiko Euroeskualdeko berrikuntza deialdira aurkeztu dugu. Lankidetzan oinarritzen den proiektua da, BLE (Iparraldeko Biharko Lurraren Elkartea) eta HAZIALDEKO (Nafarroako nekazari ekologikoen elkartea) elkarrekin dugun urte luzeko harremanetik sortu dena.

Lurraldeko lehengaiak lortzeko zailtasunak, haiek ekologikoki ekoiztearen eta transformatzeko trabak, zereal horiek okintzara lantzeko ikasbideak, eta herriak sektorearekiko duen urruntasunak sendotu dute aliantza.

Bestalde, Euskal Herrian betidanik oinarritzko elikagaia izan da ogia, eta azken hamarkadetan izan duen joera aldaketak kezkatzen gaitu (ogi industrialaren igoera %21ekoa izan da). Testuinguru honetan eta agroekologiarekiko dugun atxikimenduak eta ditugun lan lerro berak, elkarrekin lan egiteko hautua egitea ekarri du.

BLE laborari-okin taldean lurraldera egokitutako gari barietateen sailkapenean ari da lanean, eta duen esperientzia oinarri, lurraldeko gari barietateen sailkapenaz eta ezaugarritzeaz arduratuko da. Hazialdeko, Nafarroako nekazaritza ekologikoa antolatzeak gakoa izan da. Berezi giza elikadurarako laboreen ekoizpena lehenesten du. Beraien ezagutza baliatuz, lurraldeko gari herrikoien multiplizazioaz arduratuko da proiektuan. Eta azkenik, Biolurreko okintza taldeak duen urte luzeetako esperientzia kontutan hartuta, ogigintzako prozesuan ekarpen zuzenak egingo ditu, haren ardura hartuz.

HELBURU NAGUSIAK

ELKARTEEN ARTEKO LANKIDETZA INDARTU ETA EGONKORTU

Lurraldeko laborantza eta okintzaren beharrak ezagutu, gerturatu eta loturak sendotzea, balio kate guztiko agenteak biltzen dituen elkarten harremanak egituratuz. Horretarako iraunkorrak izateko xedea duten lan espazioak antolatu eta tresnak sortuko dira.

OGIGINTZARAKO LURRALDEKO GARI POPULAZIOA BERRESKURATZEA

Bioaniztasunaren galerak ingurumen arazoak ekarri ditu eta baita elikagaien segurtasunean. Klima-aldaketaren problematikaren aurrean barietate hauen erresilientzia eta osasungarriagoak izateko baldintzak ogigintzarako egokiak bihurtzen ditu. Hiru lurraldeetan ereingo dira hautatuko haziak, ogi probak egin eta prozesuen balorazioak egingez.

LURRALDEKO EZAGUTZA KOLEKTIBOA JASO, SORTU ETA TRASFERITU

Lurraldean urteetako esperientziaren ondorioz laborariok eta okinek duten ezagutza jaso eta proiektuaren prozesu kolektiboak jakintza ezberdin eta anitzen trukaketek ezagutza berria sortuko dute. Guzti hau jaso eta balio kateko agente guztientzako baliogarriak izango diren gidak egingo dira.

JENDARTEAN ALDAKETA KULTURALA SUSTATU

Proiektu honetan hainbat balio ekonomiko, sozial eta ekologiko biltzen diren egitasmoak burutuko dira eta publiko ezberdinentzako euskarriak sortu eta ekimenak egingo dira.



FRUTAZA ETXALDEA

FRUTAGINTZAN SAKONTZEN

MAHASTIGINTZA EKOLOGIKOA

Daniel Pasquet teknikariaren eskutik, aurten ere bi saio egin ditugu, maiatzak 2 eta ekainak 13an. Biolurkideak diren bi txakolindegiren esperientziak ezagutuz egin genituen formaziook, Getariako Gaintzan eta Beizamako Urkizaharren, Ekoizpen honetan izaten den zailtasunik handiena Mildiaren maneia da, eta ekologikoan gaitz hau kudeatzeko oinarrietan sakondu dugu. Baita egurraren gaixotasunak ezagutu eta neurriak hartzeko bideetan.

DUFAU MINTEGIRA BISITA

Zitrikoen ekoizpena aukera bezala ikusten ari dira Biolurkide batzuk. Kontaktuak egin eta esperientziak ezagutzen gabiltza, taldean ikasteko helburuz. Azken bi urteetan Frantziako Mont-de-Marsans inguruan dagoen Dufau mintegitik zitriko arbola dezente ekarri ditugu taldekideentzat eta udaberrian mintegia eta Monsieur Dufau bera ezagutzera joan ginen. Eskuzabaltasunez erakutsi zizkigun hainbat eta hainbat barietate eta txundituta geratu ginen!

SAGASTIEN MANEIA

Aitor Etxaindia bidelagun dugu sagastien formazioetan, eta bere ezagutza eta esperientzia aprobetxatuz, ekainaren 12an saio praktikoa egin genuen. Udako kimaketa eta maneia ekologikoa ikasi genituen eredu ezberdinetan landutako bi sagastitan. Sakona Etxaldeko mahaiko sagarrerako landatutako sagasti gazte intentsiboan batetik eta Lizagarrek Azpeitian kudeatzen duen sagardotarako sagasti sail estentsiboan bestetik.

FRUITU TXIKIEN EKOIZPENAK EZAGUTZEN

Geroz eta preziatuagoak dira fruitu txikiak gurean eta garrantzia hartzen ari den ekoizpena da. Ekoizpen mota honetan ibilbide luzea duten Urteaga- Urkulegiko Pilare eta Gorka bisitatu genituen uztailaren 18an. Urteetan zehar beraiek ugaldutako landareekin martxan duten ekoizpen polita ikusi genuen, asko gozatu genuen!!





ZER GERTATZEN ZAIE INTXAURREI? II. ZATIA

Aurreko Gure Lurriñan intxaurrekin daukagun arazo larriaren berri eman genuen eta haien artean, azken urteetan gurean ugaltzen ari den intxaurraren eulia (*Rhagoletis completa*) aurkeztu genuen.

LABURPEN GISA: euli txiki bat da. Negua pupa eran pasatzen du lur-azalean eta uda hasieran lehen euliak ateratzen hasten dira, pare bat hilabete iraun ditzakeen hegaldiari hasiera emanez. Ernaldutako euli emeek fruituaren azalaren azpian arrautzak jarriko dituzte eta hauetatik jaiotako arrek intxaur azal berdearen mamia jango dute berriz pupa bihurtu arte. Euliek eragindako ziztadetatik bakteriosia (*Xanthomonas juglandis*) sar daiteke eta hortik aurrera intxaurra erabat belztu eta usteltzen da.

Euli honek gurean duen presentzia baloratzeko asmotan, udaberrian **monitoreoa egiteko tranpak** eskaini zitzaizkien taldekideei eta batzuk animatu dira tranpak erabiltzera: Zumarragako Agerre, Mutiloko Atiber txiki eta Itsasoko Urteaga-Urkulegi baserriak.

Tranpa kromatiko itsaskor horiak dira (27x45 cm) eta hauetatik eulientzako elikagai-erakargarria daukan ontzitxo bat zintzilikatzen da. Elikagai-erakargarria dakarren ontzitxoak 90 eguneko biziraupena dauka eta beraz, ontzi bakarra behar da euliaren urteroko hegaldia estaltzeko.

Hektareako (edo intxaur saileko) tranpa bat erabiltzen da detekzio lan honetarako eta lurretik gertuen dauden adarretan eskegitzen dira.

Urteaga-Urkulegin uztaila erdialde inguruan hasi dira euliak tranpa kromatiko horietan itsasten. Atiber txikin hilabete beranduago, abuztu erdialdera. Eta Agerren ez dute lortu tranpetan euliak identifikatzea.

TRANPA KROMATIKO ETA ELIKAGAI-ERAKARGARRIAK



TRANPAN ITSASTUTAKO EULIA





Tranpak ez ezik, belzten hasitako intxaurreak behatu dira eta **euliaren arraren presentzia baieztatu da baserri askotan, hasi abuztu bukaeratik eta urri erdialdera arte.**



Aurtengo intxaur uzta ere txarra izan da orokorrean, eta zenbait kasutan oso txarra, Agerreko Joxek esan digun bezala.

Antraknosiaren aldetik hostoak nahiko garbiak azaldu dira udan zehar; orban gutxi eta berandu garatu dira. Bakteriosiak ere gutxi jo die hostoei, eta ustez eulien ziztadetatik abiatuta fruituetan sartu da. Beraz **ondorioztatu dezakegu uzta txarraren arrazoi nagusia eulia izan daitekeela.**

ARGI PIXKA BAT

Aurreko artikuluan "tranpa-lan masibo" izeneko teknika aipatu genuen. Tranpa kromatiko horiak (elikagai kromatikoarekin batera) dosi handi batean jartzean datza, lurretik irten ahala euli kopuru handi bat bertan itsatsita gelditzeko eta intxaurretara ez heltzeko.

Saltzaileek halako 50-60 tranpa hektareako dosia gomendatzen dute kontrol eraginkor bat nahi bada.

Tranpa-lan masiboaren kostua:

- Lamina kromatiko hori itsaskorak: 1,2 €/lamina, (udan zehar 2 lamina).
- Elikagai-erakargarri ontzitxoak: 3,5 €/elikagai-erakargarri ontziak.

HEKTAREAKO KOSTUA:

295 €/ha, (50 tranpa hektareako gomendioa).

Urteaga- Urkulegin teknika hau probatzen animatu dira, 20 bat tranpa hektareako dosia erabilia.

Ekaina bukaeran jarri zituzten tranpak eta, kopurua gomendatutakoa baino apalagoa izan bada ere, jasotako uztarekin itxaropentsu azaldu dira. Azken urteetan baino askoz intxaur gehiago eta hobe jaso dutelakoan daude. Azala zatika belztuta agertu den arren, nahiko erraz askatu dakioke intxaurrea eta fruitua barrutik sano eta garbi azaldu zaie, intxaur ale gehienei.

Beraz, badaukagu nondik jarraitu. Datorren urtean teknika honetan sakontzeko asmoa daukagu!

BASOGINTZA

UDAZKEN KOLOREAK

Udazkena zer den azaltzea eskatuko bagenio ume bati, zein litzateke erantzuna? Hostoak lurrera erortzen diren sasoia, perretxikoak eta gaztainak batzekoa, orbel artean jolastekoa, basoak kolorea aldatzen duela beste batek. Hotz egiten hasten dela. Baina hau horrela al da?

Autopistan gidatzean han eta hemen ikusten dira mendi sail soilduak, beste batzuk marra perfektuz beteak, baina urre koloreko basoak non dira? Pintzelaren puntaz margotuak diruditen orban txikiak ikusten dira bakarrik, batez ere mendebalderuntz bagoaz.



Aurreko batean egunkarian irakurri nuen Bizkaian hostozabalen azalerak gora egin duela eta koniferoenak behera. Albiste ona itxura batean. Inbentario forestala hartu, pixka bat begiratu eta hara!: eukaliptoak hostozabalak omen.

Hotza ere berandu ibili da aurten. Urrian jendea hondartzan. Klima aldaketaren alde ona ote? Sagarrak batzen eta sagarrondoak loran, hau ez hain ona.

Asteklimaren baitan, basogintza eta klima aldaketa uztartzeko ibilalditxoa egin genuen mendian zehar Lurgaiakoekin Urriaren 1ean. Matarrasaz botatako mendiak, eukaliptadi sartu berriak, pagomotz sail zahar batzuk eta baita gaixoak jotako pinadiak ere ikusi genituen.

Klima aldaketa saihesten basoek nola lagundu dezaketen pentsatzen jarritz gero, lehenengo ideia CO2 xurgatzeko duten gaitasuna da.

Zenbat eta azkarrago hazi orduan eta CO2 gehiago xurgatuko du jaurti zuen batek. Agian bai, epe motzera. Baina landaketa hori botatzen denean, papera edo dena delakoa egiteko, berriz bueltatuko da atmosferara eta arazoa areagotuko du. Ez hori bakarrik, **lurzorua egitura guztiz eraldatzen da matarrasa bat egiten den bakoitzean eta bere emankortasuna galtzen da.** Ez dugu ahaztu behar lurzorua dela karbono dioxidoa finkatzeko benetako ahalmena duena.

Lurzorua baso ekosistemaren parte garrantzitsuenetako bat da eta baita zaugarriena ere.


Bertan deskonposatzaileek materia organikoa birziklatzen dute ziklo konplexuak itxiz. Onddoak landarediaren sustraiekin elkarlanean aritzen dira elkar lagunduz eta talde lanean basoa bere osotasunean egitura konplexu bat bilakatzen da. Ezagutu beharrekoa.



Ibilaldia pinudi izandako sail batean bukatu genuen. Duela 30 urte haizete batek pinu batzuk bota ostean, pinua atera eta bertan behera geratu zen.

Gaur egun, haritzez, pagoz, urritzez, gaztainondo, gereziendoz, berez sortutako basoaren erdian, 20 bat pertsonako taldeak azalpenak entzuteko borobil bat egin genuen. Erdian, orbel artean, onddo zuri bat ikusi zuen batek, beste hiru edo lau ez oso urrutiti. Udazken loreak. Izan ere **basoak bere bidea egiten du, utziz gero.**

Bertako baso helduak eta hauetara heltzeko dinamikak ezagutzea beharrezkoa da. Aldaketa klimatikoaren aurrean erresilientzia eta malgutasuna dutenak, CO2 xurgatu bai baina bide batez lurraren emankortasuna bermatu, muturreko gertaera klimatikoak malgutu, uraren emaria erregulatu, biodibertsitatea zaindu eta guzti honekin batera hain gustuko ditugun kolore bizi eta anitz horiek eskaintzeko gai dena. Ah!... eta ondoak.



URKI IZERDIA BILTZEKO TAILERRAK AURTEN ERE JARRAIPENA IZAN DU.

Aurreko urteari jarraikiz, aurten ere GOIABEKO kideak urki izerdia biltzeko saio praktikoa egin zuten udaberrian.

23 pertsonak eman zuten izena, eta aurreko urtean ikasitakoak praktikan jarri eta bakoitzak bere teknika eta jakituria konpartitu zituen.

Basoak ez duelako egurra bakarrik ematen, eta baso jangarriaren ikuspegia txertatzea ere bada gure asmoa.



KIDEEK ZER DIOGU

AIZPEA IZAGIRRE BALDA OKINA, SOSOLA BASERRIA, EIBAR

Duela 20 urte ezagutu nuen Biolur elkarte. Sosola Baserrian okin lanetan hasi eta okinen lantaldean hasi nintzen, labekada bereko beste okin hasiberri eta aurretik zebiltzan beteranoekin batera. Bertan aurkitu nituen maixu-maistrak eta baita aurrera begirako ikuspegiak argitzen bidelagun izan ditudan kideak ere.

Biolur niretzat eskola bat izan da. Formazio teorikoaz gain, langintza praktikara eramaten lagundu nauena, behar izan ditudan inbertsioen orientazio eta aholkularitza eskeini didana, lehengaiak taldean elkarrekin ekartzeko modua eman didana, gure produktua modu duinean merkaturatzeko euskarri eta babesa eman didana.

Eta batez ere lagunak eman dizkit, **eraiki dugun gizarte honetan arnasmunea, aurrera segitzeko norabidearen azterna.**

Orain beste pausu bat eman eta zuzendaritza batzordeko partaide izatera pasa naiz. Bertan, ikuspuntu zabalagoa jasotzen dut, lantalde ezberdinetako egitasmoak, agroekologia bidean bidelagun diren beste eragileen elkarlanen berri izan, sortzen diren oztopoak aztertu eta soluzio posibleak bilatu, aldarrikapenak babestu, proiektuak defendatu e.a.

Ez da lehen aldia zuzendaritza batzordean parte hartzeko proposamena jaso dudana, baina egia esateko, arrazoi ezberdinak tarteko, ez dut neure burua talde horretan parte hartzeko moduan ikusi. Arrazoi hoiak sakonean aztertu ezker, kosziente naiz **emakume izatea eta honek dakarren bizipenen motxilak izan duela eraginik eta aukera hau aprobetxatuaz ahotara ekarri nahi nituzke.**

Baserrian okintza lanetaz arduratzeaz gain, denok dakigu badirela amaitu gabe geratzen diren hamaika lan eta lanari aurea hartzea ezinezkoa denez, lehentasunen irizpideak agintzen du.



Gurean amak beti esan izan du, lehentasuna lanak eta familiak dutela, eskola horretakoak gara. **Jaten eman dugun ogia egiteak eta alaba-semeen ardurak izan dute nere arreta eta ez da gutxi!!**

Honek gizartean erabaki gune diren esparruak gure lehentasun zerrendatik apartatzea ekarri du. Kosziente egin gabe, hor ez parte hartzeak lan guzti horren errekonozimendu eza eragin du alde batetik, eta gizartearen ikuspegia bide produktibo-ekonomizista soilean oinarritzea bestetik.

Gure eredu agroekologikoaren oinarria orekan datza. Ezin liteke kalitatezko mozkinik ekoiztu animalia edo lurraren zaintza egokirik gabe, gure arteko zaintzarik gabe eta parte hartzen dugun lantaldeetan emakume-gizon arteko armoniarik gabe.

Idea hauek etorkizuneko gizarteari transmititzea izan behar du gure erronka eta horretarako aukera bikaina eskeintzen digu AMILLUBI proiektuak. Proiektu honetan genero ikuspegiaz gain, esparru ezberdinetako orekak landu daitezke, hala nola; baserritar-herritar elkarlana, erreleboaren gaia, esperientzia eta jakinduriaren transmisioa, jabetzaren kolektibotasuna e.a.

Gure esku dago esparru hauetan armonia bilatzea, erronka bikaina daukagu esku artean!!

ASUNEK

AINTZIRA OÑEDERRA ARAMENDI ASUNEK BEHATOKIA, AZKOITIA

Ikerketa agroekologikoaren erpinak eta borobildu beharreko ertzak.

Agroekologiak elikadura sistema ekologikoago, bidezkoago, jasangarriago, osasuntsuago eta tokiko kultura eta errealitatera egokituago baten aldeko aldarria egiten du. Ikerketa agroekologikoa berriz, **Elikadura Sistema industrialaren eraldaketa bideratzeko esku artean dugun baliabideetako bat da.** Aldi berean, Agroekologia hiru eremuren baitan mugitzen den heinean (praktika, zientzia eta mugimendu sozio-politiko gisa), ikerketa agroekologikoa hiru ardatz hauen arteko muga lausoetan mugitzen da. Hau da, **ikerketa konbentzionaletik aldendu eta prozesu eraldatzaileak ezartzeko motore izan asmo du,** horretarako beharrezko metodologia eta ebidentziak garatuz.

Bide horretan murgildu gara Baztango udalarekin batera, landa eremua jasaten ari den artifizializaziorako eta urbanizaziorako kanpo presioen aurrean, landa eremutik eta landa eremuarentzat egiten den ikerketa lurreratuago baten xerkan. **Bi urteren bueltan egindako bideak erakutsi digu ikerketak tokiko errealitatean eragin asmo badu, ezinbestekoa dela trantsizioak emateko gaitasuna duten eragileekin ikerketa galderak, helburuak, espektatibak eta inpaktuak adostea.** Jakina da antzeko ikerketa prozesuak garatzeko finantziazio iturriak eskasak direla, egindako bidea aintzat hartu ordez, ikerketa emaitzak bestelako parametroen baitan baloratzen direlako. Ohikoa da ikerketa proiektuak lau horma akademikoen artetik abiatu eta zientzia aldizkarietan amaitzea.

Bestalde, **ikerketa agroekologikoak Elikadura Sistemen transformazioa bilatzen duenez, disziplina anitzen arteko elkarlanetik etorri behar du.** Gaur egungo krisi eko-soziala areagotzen duen paradigmak erpin anitz ditu, eta proposamenek ere ikuspegi sozial bezain teknikoa, politikoa bezain kulturala, edo artistikoa izan behar dute. Hala ere, jakintza arlo ezberdinen arteko elkarriketak bere horretan



geratuko dira, tokian tokiko jakintzaren bitartez osatzen ez badira.

Horrez gain, **arreta berezia jartzen dugu ikerketa proiektuen inpaktua lortzeko emaitzen zabalkunde edo gizarteratzean.** Gaur egun bizi dugun informazio ultra-prozesatuaren garaiotan, pentsa baino zailagoa da Elikadura Sistema agroekologikoei bide emateko ebidentziak komunikazio kanal egokien bitartez helaraztea. Bilatzen dugun publikora iristeko (kontsumo ohiturak aldatu behar dituzten herritarrengana edota politika publikoak egokitu behar dituzten instituzioengana, adibidez) landu behar ditugun euskarriak anitzak eta sortzaileak izan behar dute, gainontzean entzungor egiten zaie.

Beraz, ikerketa agroekologikoa bere horretan eraldatzailea eta disruptiboa izango bada, gaur egungo unibertsitate egitura zurrunetatik at bestelako lankidetzak espazioak ber-asmatzea besterik ez zaigu geratzen. Horretarako, ezinbestekoa izango da lankidetzak hori emateko ereduak definitzea, prozesu hauek bideratzeko gaitasuna duten eragileekin partekatzea, ikerketa metodologiak protokolizatzea, konfiantzari lekua ematea, eta komunikazio bide seguruak lantzea. Hau da, **norbere zilborrari begiratzeari utzi eta elkarlanerako eremu horretan kokatzea.** Modu horretan soilik lortuko dugu ikerketa agroekologikoak tokian tokiko errealitatean eragitea eta behar duen inpaktua izatea, garapen ekonomikoak orain arte erakutsi duen norabide bakarreko ikuspegiari buelta ematea. **Jakintza boterea da eta agroekologiak badu ebidentziarik krisi-ekosozialaren aurrean bere loraldia izateko.**

AGROEKOLOGIA ALDARRIKATZEN

2023 urtean ekimen ezberdinen bitartez plazara atera gara. Elkartearen 30 urteko ibilbidea jendarteratzeko hainbat komunikabide izan ditugu bozgorailu, eta lortu dugu ahal izan dugun neurrian behintzat, elkartea ezagutarazteko eta eragile bezala egiten dugun ekarpena azaltzeko beste urrats bat ematen.



EGONARRIA podcast-a



BERRIA



ARGIA



LANDABERRI

DUINA ikerketa proiektua izan da azken urteetako lan garrantzitsuetako bat, eta bertan ateratako ondorioak zabaltzen jarraitzen dugu, beharren arabera lan ildoak garatu eta inplikazioak sustatzeko helburuz.



DEUSTU unibertsitatean
DONOSTIKO KANPUSA



GURPIDE elkartearen
eskutik **LARRABETZUN**



BIONEKAZARITZAren
eskutik, **GASTEIZKO**
Elikaduraren XVI. gizarte
topaketetan.



IKERTU NAHIEN mugaz
gaindiko **topaketan**
BAZTAN

Azoka ekologikoak, hamabostaldiak eta topaketak urtero eredu ekologikoaren erakuslehoio izaten ditugu, eta aurtengo Udalen, Kontsumo Taldeen, Landa Garapenen eta ENEEK-EKOLURRA kontseiluaren laguntzarekin hainbat herrietan izan gara. EKOIZPEN DUINA KONTSUMO HERRIKOIA izan da aurtengo leloa.



ZARAUTZ



ZUMAIA



DONOSTIA



ERRETERIA



ZERAIN



AZPEITIA



ARETXABALETAK



EIBAR



LEITZ GATZAGA



VILLABONA

GREBA FEMINISTA OROKORRA

BIOLURREN AGROEKOLOGIA ETA FEMINISMOA UZTARTZEN

Urriak 15ean emakume baserritarren eguna izan zen; azaroak 30en Greba Feminista Orokorra, Zaintza Eskubide Kolektiboaren alde egiteko borroka deia.

Emakume baserritarrak zaintza sistemari eusteko funtsezkoak bezain ahaztuak izan dira, sozialki zein politikoki, eta azken urteetan hainbat aldarrikapen plazaratzen ari gara.

Azaroak 30eko grebarako plazaratu zen Herri Akordioaren puntuetan “Agroekologia babestea eta sustatzea” irakurri genezakeen; azken urteetan mugimendu agroekologikoaren eta mugimendu feministaren artean izandako elkarlanaren isla.

Biolurren ekoizpen jarduera lurrarekin lotuz eta gure arteko harremanetan irizpide ekologikoak mugarri izanik lan egiten dugu; eta Biolurkide emakumeon* topagune bat ere izatea nahi dugu; herritar zein ekoizleen arteko hartuemanen bitartez autodefentsa agroekologiko eta feminista eraikitzeko.

Asmo hoiei lotuta, joan den azaroak 17an Itziarren Biolurkide emakumeon* lehen topaketa antolatu genuen, eta bertan ditugun kezkak, beharrak eta gogoak partekatu genituen; azaroak 30eko grebara atxikitzeko adierazpena nola plazaratuko genuen ere erabaki genuen.

Egungo Zaintza Krisian inoiz baino presenteago daude krisi ekologikoa eta lurraren zaintza. Eta zaintza krisian Agroekologiak eta Elikadura Burujabetzak bizitza erdigunera dakarte, elikadura-prozesu iraunkorrak funtsezkoak direla mahaigaineratuz, eta horien aldeko apustua eginez.

Gure ustez agroekologia eta elikadura-burujabetza ez dira erabat eraldatzaileak izango parametro feministak kontuan hartzen ez baditugu, eta horrek aldaketa kontzientea izan behar du; inertziak, bestela, rol eta portaera patriarkaletara eramaten gaitu.

Norabide horretan hurrengo hilabeteetarako ere ekintza pare bat zehaztu genituen. Bata, **Bionekazaritzako kideekin batera antolatzen ari garen makinaria ikastaro ez mistoa; urtarrilean izango da**, eta laster partekatuko dugu non eta noiz izango den zehazki. Bestalde, udaberria hasi aurretik beste topaketa bat egitea nahiko genuke. Honek ere ez du datarik, baina antolatuko gara.

Lanketa esplizitu hau hasi berria dugu Biolurren, eta Biolurreko emakume* guztioi irekia da. Animatu parte hartzera espazio berri honetan. Deialdiak betiko moduan jakinaraziko ditugu, baina interesa bazenu ez dudarik egin bulegora deitu eta harremanetan jartzeko. **AURRERA AGROEKOLOGIA ETA GORA BORROKA FEMINISTA!**





AMILLUBI, LURRA TAUPAKA

Biolurrek 30 urte bete ditu aurten. Hasiera haiek oroitu genituen aurreko Gure Lurriña zenbakian; **sorkuntza garai haien testiguekin elkarrizketa** ederra izan genuen Lapatza baserrian. **“Baserritarrak nola sartu ziren, salto egin zuten, sarerik gabe....hori bizitza osorako eredugarria izan zen”** azpimarratu zen.

Eta etorkizunaz galdetuta, zera jaso genuen: ***Biolurrek lortu behar du jendartearen barruan dagoen hori ateratzea. Garbi esan behar diogu jendarteari politikoak mugituko direla jendartea mugitzen bada. Eta hori denon artean egin behar dugula! Eta nekazariak behar ditugula. Hormigoirik gabeko horiek zaindu behar ditugula. Biolurrek beste pausu bat eman behar du, adibidez Amillubiko proiektuarekin. Hainbat kolektiboetako kideak erakarriz.***

Dagoeneko hilabete batzuk joan dira elkarrizketa hartatik, eta Amillubi gero eta proiektu errealagoa bihurtu da. 2023ko **martxoak 11an Biolurreko ez-ohiko batzarra** izan genuen Aizarnazabalen. Bertan, **aho batez, Amillubi proiektuarekin aurrera egitea erabaki zen.** Zalantza, beldur, eta kezka guztiekin. Orduz gero, bide luze eta emankorra egin dugu. **Amillubin taupaka hasi da lurra.**

BIOLUR ZAINDUZ, AMILLUBIKO TALDE ERAGILEAREN SORKUNTZA

Biolurren garbi ikusi zen Amillubi aurrera ateratzea estrategikoa zela, eta aldi berean lan andana ekarriko zuela, eta ezin duela Biolur eguneroko lanetik desbideratu.

Horregatik, zentzuz aurrera joatekotan, Amillubirako espresuki lantalde sendo bat sortu behar genuela. Horretarako martxan jarri ginen, baliabideak lortu eta talde eragile bat osatzeko kide izan zitezkeen horiekin pentsatzen. Momentu horretan **Biolurreko 30. urteurrena prestatzen genbiltzan, eta festa prestatuta horretarako sortu zen lantaldea abiapuntua paregabea izan zen Amillubiko Talde Eragilea (ATE) eratze**

Biolurrekiko dugun atxikimendua izan zen orduan ere pegamentu. **Talde horretan parte hartzen dugu Biolurreko hainbat kide baserritar eta ekoizlek, herritarrek eta hainbat eragilek.**



Eta horrela hasi ginen 15 egunean behin elkartzen, azpi-lantaldeak osatzen eta antolatzen **(Talde sozioekonomikoa, Komunikazio-Sorkuntza taldea eta Amillubi-proiektuak lantaldea)**. Azpi talde bakoitzak bere zeregin propioak ditu, eta guztia koordinatzen bi jardunaldi erdiz aritzen diren Biolurreko bi lagun.

Laburbilduz, hauxe da azken hilabeteetan eginiko bidea:

2022-2023	2023-2024	2024tik aurrera
- Erosketa kontratua zehaztu familiarekin. - Biolur Herri Onurarako elkarte izendatzeko eskaera bideratu. - Eragileekin elkarlana landu. - Lehen finantza iturriak lotu. - Amillubiko Talde Eragilea sortu. - Planifikazio ekonomiko eta komunikatiboa.	- Proiektuaren finantzaketa plana jorratu. - Komunikazio plana jorratu. - Amillubin garatuko diren proiektuen zehaztapena. - Amillubin lehen landaketak. - Eragileekin aliantzak jorratzen jarraitu. - Jendarteratze mailakotua: sektorea, eskualdea, Gipuzkoa, Durango (DA)...	- Elikagaien ekoizpena eta proiektuen etalpostuen sorrera. - Hego Lurzaindiaren eraketa.



Urtea amaitzeaz dagoen honetan azpimarratu behar da Amillubi proiektuak harrera oso ona izan duela. Bide honetan hainbat eragile eta erakunderen babesa izan dugu.



Horietako batzuekin **hitzarmenak sinatu ditugu**, askoren babes ekonomikoa jaso dugu, edota babesa eman digute dirua lortzeko aurkeztu garen deialdi batzuetara. **Irudian ikusi daitezke** bidelagun izan ditugun lehen sektoreko elkarte, eragile eta erakundeak, ekonomia sozial eta eraldatzaileari lotutako kooperatibak, komunikazio esparruko eragileak, instituzioak,...

Azpeitian abenduaren 1ean Urola eskualdeko aurkezpen irekia izan genuen, eta abenduaren 8an, Argiaren eskutik, Durangoko Azokan maila nazionalekoa.



Bide honi esker planifikazio ekonomikoak aurrera egin du. Amillubiko lurrak eta baserriaren erosketarako **390.000 euro behar ditugu**. Biolurreko kideok Amillubi saldu digun familiaren jarrera eskertu nahi dugu. Ez du lurrarekin espekulatu eta beti izan dute prestutasun handia ordainketa errazteko. Bi urtetan zehar ordainduko dugu, hainbat epetan. Horrek erraztu digu denboran hainbat ekimen egin ahal izatea dirua biltzeko. **Diru bilketa iturri desberdinetatik lortzea aurreikusi dugu**: Biolurkideen ekarpenak, Kooperatiben funts sozialak, Crowfundinga, Bonolaguntzak, Erakunde publikoen inplikazioa eta hainbat ekimen sozial.

Hauek jakinarazteko **euskarri desberdinak** sortu ditugu: eragileekin partekatze oinarritzko dokumentu eta aurkezpenak, bideoak, webgunea, bonolaguntza-opariak,...eta guzti horien hedapena komunikazio planaren arabera. Onartu behar dugu ilusio handiz eta ahalik eta koherentzia gehienarekin garatu ditugula denak.



Halaber, azken asteetan jarraitu dugu modu mailakatuan lehen sektoreko eragileekin bilerak egiten, baita eskualdeko udalekin eta beste hainbat eragile ekonomiko eta sozialekin, euren parte hartzea eta ekarpena Amillubin baloratu dezaten.





Aldi berean, erosketa gauzatzea garrantzitsua izan arren, lehen pausua besterik ez da. **Amillubiko Proiektu-lantaldean garatu daitezkeen proiektuak definitzen gabiltza.** Lehen kolpean dagoeneko profesionalki jarduten duten nekazari eta baserritarrek udaberritik aurrera jorratuko diren ekoizpenak zehazten gabiltza (baratzezainekin, okinekin – aintzianako hazi herrikoiak probatzeko,...) eta udaberrian ere landaketa batzuk auzolanean egitea aurreikusten da (babarruna eta beste elikagai batzuk).

Amillubin lehenengo sektorean jarduten dutenentzat ere aukera berriak sortu nahi ditugu: elikagai ekologikoen ekoizpena handitzeko, azpiegitura amankomunak izateko, komertzializazio bideak hedatzeko eta abar. Badakigu baita proiektu bat zerotik martxan jartzeak zein zailtasun dituen. Horretarako, **Amillubi aukera izan daiteke lurra eskuragarri jarri eta lehen sektorean jardun nahi duten proiektu agroekologikoak martxan jartzeko baldintza duinak sortzeko.** Amillubiren kokapen egokiak ere elikagaiak banatzeko hornikuntza unitate bat garatzeko aukera eman dezake, eskualde eta Gipuzkoako kontsumo elkarteekin elkarlanean. Noski sentsibilizazio, hezkuntza eta beste bide batzuk ere jorratzea ez da albo batera uzten, baina **bereziki Amillubin erreleboa eta ekoizpen proiektu agroekologikoen bitartez elikagaiak baldintza duinetan ekoiztu eta herritarren eskura jartzea dugu helburu.**

Hau martxan jartzeko **guretzat erreferentzia da iparraldeko Lurzaindia**, eta bide hori jorratzen hasteko Amillubi hazia izan daiteke. **Biolurren izpirituari jarraituz, Amillubin praktikatik agroekologia jorratu eta elikadura burujabetzaren bidea egin nahi dugu.** Herritik eta herriarentzat, ekoizleen lan baldintza duinak iparrorratz. Eta jendartearen barruan dagoen hori atera eta atxikimendua ernatu. Eta hori denon artean egin behar dugula sinistuta gaude. Bakoitzak bere alea jarritz. Nekazari izatearen harrotasuna lau haizetara zabalduz.



*Mendian gora haritzak
Ibai ertzetan baratzak
Erein ditzagun zure, nire ta
gure esperantzak.
Herritik herriarentzat
Erleek gisa erlauntzak
Iraul ditzagun zoro dabiltzan
gaurko iparrorratzak.*

*Amillubin lurra taupaka
Mila ilusio borborka
Saretzen gabitz jostorratz finez
hamaika borroka.
Lurrarekin bat, orroka
Behar gordina dago ta
Lurra zainduaz elikatzea
da dugun erronka.*

(Doinua: Imanol Larzabalen "Mendian Gora")



